

### 3. ATALA: PSIKOFISIKA

---

Psikofisika terminoa Theodor Fechner fisikari eta filosofoari zor diogu, termino hori lehen aldiz autore horrek 1860 urtean idatzitako *Elemente der Psychophysics* liburuan agertu baitzen. Psikofisika hitza grekotik dator eta bi errealitate guztiz desberdinak integratzen ditu: alde batetik, "psyche" hitzak "gogamena" du esanahia, eta, bestetik, "physiske" hitzak ingurunekeo estimulu fisikoei egiten die erreferentzia. Horrenbestez, psikofisikak helburu du estimulu fisikoek subjektuarengan eragiten dituzten sentrazioak edo pertzepzioak aztertzea, eta neurtzea eredu matematikoen bidez (ikus Ballesteros, 2001; Blanco, 1997; Goldstein, 1988, Lillo, 1993 eta Muñiz, 1991).

Baina sentrazioak eta pertzepzioak neurtzea zaila izaten da. Alde batetik, ez dute neurri fisikorik (forma, luzera, pisua...), eta, beraz, neurketa ez da inoiz objektiboa izaten; bestetik, sentrazioei eta pertzepzioei buruzko datuak esperimenduetan parte hartzen duten subjektuek emandakoak izaten dira, eta datu horiek ez dira beti fidatzekoak izaten, faktore batek baino gehiagok baldintzatu bailitzake subjektuaren erantzunak (haren egoera emozionalak, nekeak, aurre-esperientziak...).

Oztopoak gainditu nahian, hainbat metodo proposatu izan dira historian zehar pertzepzioak eta sentrazioak neurtzeko. Egokitze Metodoa, Mugen Metodoa eta Estimulu Iraunkorren Metodoa dira hiru teoria klasikoak, behaviorismoaren garaikoak. Haien bidez neurtu ahal izan ziren pertzepzioak eta sentrazioak lehen aldiz; baina bazituzten zenbait hutsune, eta, hutsune horiek osatzeko, Seinaleen Detekzioaren Teoria sortu zen kognitibismoaren garaian. Azken teoria hori erabiltzen da gaur egun, eta, haren garrantzia dela-eta, kapitulu honetan jorratuko dugu.